

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

12/2020 Foru Araua, uztailaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoko 2020. urterako aurrekontua gauzatzeko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Araua aldatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailaren 17an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

12/2020 Foru Araua, uztailaren 17koa, Arabako Lurralde Historikoko 2020. urterako aurrekontua gauzatzeko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Araua aldatzeko.

ZIOEN ADIERAZPENA

Osasunaren Mundu Erakundeak, 2020ko martxoaren 11n, COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun publikoko larrialdi egoera nazioarteko pandemiatzat jo zuen. Estatuan eta nazioartean gauzak horren azkar gertatzearen ondorioz, egoerari aurre egiteko berehalako neurri eraginkorrak hartu behar izan ziren. Geratu diren aparteko egoerak, zalantzarik gabe, inoiz gertatu ez den osasun krisia izan da, eta oso handia, bai kaltetutako pertsonen kopuru handiagatik, bai haien eskubideetarako aparteko arriskuagatik.

Alarma, salbuespen eta setio egoerei buruzko ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoaren laugarren artikuluko b) eta d) apartatueta xedatutakoaren babesean, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu zen COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko.

Ildo horretan, administrazio publiko guztiek beharrezko neurriak hartu dituzte, herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko eta gaixotasuna geldiarazi eta osasun publikoaren sistema indartzeko, eta aldi baterako ezohiko neurriak hartu dira, larrialdi egoera gizartean eta ekonomian izaten ari den eragina arintzeko.

Arabako Lurralde Historikoko eremuan, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 18ko 2/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren xedea da agintari eskudunek hartutako neurriek eragindako zergadunengan sortzen ari den eragin ekonomiko negatiboari erantzuteko neurriak hartzea, bai eta horiengan eragin ekonomiko negatibo handiagoa prebenitzea ere. Kontua da osasun larrialdiko egoerak ekonomiaren sektore ahulenetan, hau da, enpresa txikietan eta pertsona autonomoengan izan dezakeen eragina arintzea, eta haien likidezia bermatzea.

Zehazki, honako hauei loturiko neurriak ezarri dira: zerga prozeduretan epeen hasiera etetea edo luzatzea, likidazioen eta zenbait autolikidazioen aitorpena eta diru sarrerak egiteko epea etetea, zerga prozeduren izapideak etetea, zerga zorren ezohiko zatikatzea arautzea, indarreko geroratzen tratamendua eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatu batzuk kentzea.

Halaber, 2019ko ekitaldiari dagozkion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitorpenak aurkezteko arauak eta modalitateak onetsi dira, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren martxoaren 24ko 151/2020 Foru Aginduaren bidez, zeinak aldatzen baititu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitorpenak aurkezteko epeak, 2019ko ekitaldiari dagozkionak, bai eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioaren ondoriozko zenbatekoa borondatezko epean ordaintzeko epeak ere, 2020ko azaroaren 20ra arte luzatu baitira.

Hirugarrenez, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 12ko 5/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarrien apirilaren 21eko 15/2020 Legegintzako Errege Dekretua egokitzen du Arabako zerga araudira.

COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun krisiak ekonomian izango dituen ondorioak eta horri aurre egiteko Foru Sektore Publikoaren esparruan hartu diren neurriek eragina dute Foru Sektore Publikoaren finantza egoeran, eta, ondorioz, beharrezkoa da ahalik eta malgutasunik handiena izatea sektore horren finantzaketaren arloan erabakiak hartzeko prozesuan.

Bestalde, Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko 53/1992 Foru Arauaren 108. artikulua ahalmena ematen dio Foru Gobernu Kontseiluari, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Diruzaintzako une bateko zailtasunei erantzuteko beharrezkoak diren finantza eragiketen formalizazioa onets dezan, horiek dokumentatzeko modua edozein dela ere, hamabi hilabeteko edo gutxiagoko itzulketa epe baterako.

2020rako Aurrekontuak Gauzatzeari buruzko 24/2019 Foru Arauak, aldiz, mugatu egiten du 2020ko ekitaldian formalizatuko diren epe laburreko mailegu edo kreditu eragiketa pasiboen saldo bizia Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren diru sarrera arrunten ehuneko hamarrera.

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz gertatu diren aparteko inguruabarrak direla eta, Arabako Foru Aldundiak malgutasun handiagoa eman behar dio zorpetze eragiketei lotutako erabaki prozesuari, goian aipatutako neurriek eragindako gastuen eta diru sarreren aldi baterako banaketa berriaren ondoriozko diruzaintzako beharrian puntual handienak konpondu ahal izateko. Horretarako, proposatzen du 2020. urterako Aurrekontuak Gauzatzeari buruzko 24/2019 Foru Arauan jasotako muga ezabatzea, epe laburreko maileguen edo kredituen eragiketa pasiboetarako.

Artikulu bakarra. Aldatzea abenduaren 17ko 24/2019 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko 2020. urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzkoa

Arabako Lurralde Historikoko 2020. urterako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauaren 4. artikuluko 5. zenbakia aldatzen da; honela dio hemendik aurrera:

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak diruzaintzako unean uneko zailtasunak artatzeko behar dituen finantzaketa eragiketak formalizatu ahal izango ditu.

Azken Xedapenetako. Indarrean jartzea

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 17a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA